

DNA datuak gordetzeko aproposa dela frogatu dute, film bat DNA bihurtuta


Lumière anaien *L'arrivée d'un train à La Ciotat* filma (1895) DNA bihurtu dute Columbia Unibertsitatean. Horretarako, kode bitarrean 0 eta 1en bidez adierazitako informazioa DNAREN base nitrogenatueta (A, C, G, T) itzultzen duen algoritmo bat sortu dute.

Filmaren kode bitarra kode genetikora itzuli dute, hura sintetizatuz laborategi batera bidali (Twist Bioscience, San Frantzisko, Kalifornia), han DNA bihurtu, eta gero berriz atzera Columbian jaso, eta deskodetuta, filma ikustea lortu dute, batera akatsik gabe.

Lehen ere, egin dira antzeko probak, baina akatsak ematen zituzten eta mugatuak ziren. [Science aldizkarian azaldu dutenez](#), ordea, haiek garatutako metodoa erabat fidagarria da eta orain artekoek baino informazio gehiago gordetzeko aukera ematen du. Prozesua garestia dela aitortu duten arren, denborarekin merketu eta eskuragarria izango dela espero dute. ●

Jupiterren hego-poloa argitara

Juno zundak Jupiterren argazki berriak bidali ditu. NASAk edonoren eskura jarri ditu, nahi bezala erabili eta eraldatzeko. Eraitza interesgarriak atera dira hor-tik; esaterako, Gervasio Robles-ek egindako hau: Jupiterren hego-poloaren ikuspegi da, planetaren inguruan hiru hegalditan egindako argazkiekin osatua. ●



ARG.: NASA/SWRI/MSSS/GERVASIO ROBLES



Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Martin Ugalde K.P.

20140 - ANDOAIN

kluster@soziolinguistika.eus

bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus

<http://www.soziolinguistika.eus/bat>

BAT 102 IX. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

1. SARIA

Mario Zapata Migratzaileen harrera, gutxiagotutako hizkuntzen testuinguruan. Administrazioz kanpoko harrera-eragileak eta hizkuntzen trataera, euskararen eremu geolinguistikoan

2. SARIA

Txerra Rodriguez
Mihigintza ehuntzen Basaurin

3. SARIA

Irati Lizeaga Elizalde

Euskara, galiziera eta Irlanderaren hiztun berrien hizkuntza-identitatea

> MUNDUKO SOZIOLINGUISTIKAREN
LEIHOA

Iris Campos

Hurbilketa aragoieraren egoerara
Lehen Hezkuntzan eta
Haur Hezkuntzan 20 urtez irakatsi
ostean. Familien jarrerak

David Crystal

Hizkuntzen eta hizkuntza etheen mundua

> KRONIKA

Beñat Garaio Mendizabal

Hizkuntzak eta gatatzak, testuinguru
anitzetako hizkuntza eta
identitate politikak (Londres, 2016/05/20)